

Agiri honek kanpaina honen baldintzak jaso eta zehazten ditu:

PRO LASAITASUNA ASEGURUAK

Kanpainaren helburua da merkataritzako/negozioko, bizitzako, eguneko bajako, osasuneko eta erantzukizun zibileko polizak kontratatzea. Poliza horiek, konpainiaren oinarrizko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

1. Kanpainaren datak

Sustapena 2021eko irailaren 15ean hasi eta 2021eko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edozein unetan, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2021eko irailaren 15etik azaroaren 10era bitartean kontratatu behar dira polizak (efektu-datak, berriz, 2022ko martxoaren 31ra arteko muga izango du merkataritza/negozioko, erantzukizun zibileko eta bizitzako aseguruetan, eta 2022ko urtarrilaren 31ra artekoa osasuneko eta eguneko bajako aseguruetan).

2. Eskaintza

2.1.- Elkarrizketa egiteagatik

MERKATARITZA DIGITALAri buruzko DOAKO ONLINE IKASTARO bat oparituko zaio bezeroari.

2.1.1.- Baldintzak

- Eskaintzak merkataritza-aseguruaren proiektuetarako balio du, betiere 2021eko irailaren 15etik azaroaren 10era bitartean egiten badira.
- Ikastaroak web-mintegien formatuko 5 lantegi ditu, ondoz ondoko astearteetan egin beharrekoak.
- Lehen lantegia 2021eko azaroaren 16an egingo da, eta azkena 2021eko abenduaren 14an.
- Ez da beharrezkoa lantegi guztietara joatea: interesgarritzat jotzen dituenetara joan daiteke bezeroa.
- Beranduenez, 2021eko azaroaren 15ean bidaliko zaizkio lantegietarako sarbideak interesdunari, hau da, lehen lantegiaren bezperan.

2.2.- Asegurua kontratatzeagatik

2.2.1.- Merkataritzako, negozioko edo erantzukizun zibileko poliza berrietan

2.2.1.1.- Kontratatutako aseguruaren priman 3 hilabeteri dagokion zatia itzuliko da gehienez, baldintza hauen arabera:

- Kontratatutako polizaren priman 2 hilabeteri dagokion zatia itzuliko da, baldin eta adierazitako adarretako poliza berri bat kontratatzen bada. Kontratatutako poliza bakoitzean 2 hilabeteri dagokion zatia itzuliko da, baldin eta adar bereko poliza bat baino gehiago kontratatzen badira. Gehienez 50 € itzuliko dira merkataritzako eta erantzukizun zibileko polizetan eta 75 € negozioko polizetan.

- Kontratatutako poliza bakoitzaren priman 3 hilabeteri dagokion zatia itzuliko da, baldin eta 2 poliza edo gehiago kontratatzen badira eta 2 gutxienez adar hauen arteko ezberdin bi badira: merkataritzakoa, negoziakoa edo erantzukizun zibilekoa.

Halaber, kontratatutako poliza berriaren priman 3 hilabeteri dagokion zatia itzuliko da, baldin eta bezeroak autoko, bizitzako, merkataritzako, negozioko edo erantzukizun zibileko aseguru bat badauka gurekin eta 3. eta 4. ataletan edukitzari buruz jasotako baldintzak betetzen baditu.

Gehienez 75 € itzuliko dira merkataritzako eta erantzukizun zibileko polizetan eta 100 € negozioko polizetan.

2.2.2.- Bizitzako, PRO osasuneko eta eguneko bajako poliza berrietan, 50 € itzuliko ditugu kontratatutako poliza bakoitzeko, betiere 3. eta 4. ataletan jasotako baldintzak betetzen badira. Gehienez 100 € itzuliko dira bezero bakoitzeko.



3. Kanpainaren baldintzak

3.1- Baldintza orokorrak

- Eskaintzak aseguru-poliza berrietarako soilik balio du, betiere 2021eko irailaren 15etik abenduaren 31ra bitartean kontratatzen badira.
- Kontrataturiko poliza bakoitzak LABORAL Kutxan egon behar du helbideratuta.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili.
- Gehienez 350 itzulketa (bezeroei zuzendutako ordainketa) egingo dira merkataritzaren, negozioaren, erantzukizun zibilaren eta bizitzaren adarretan.
- Gehienez 200 itzulketa egingo dira eguneko bajaren eta osasunaren adarretan.
- Sustapenez baliatzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Itzulketarako eskubidea ematen duen polizaren ordainagiria kobratu ondorengo 90 egunetan egingo dira ordainketak.
- Oparia poliza bakoitzaren helbideratze-kontuan dirua sartuz gauzatuko da.

3.2.- Produktu bakoitzaren baldintzak alta berrietan

A. Merkataritza/negozioa

- Aseguru-konpainia: Seguros Lagun Aro SA.
- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Aseguratua errentatzailea edo jardueraren jabea eta ustiatzailea bada, beharrezkoa izango da edukitzailearen kapitalean gomendatutako zenbatekoa edo handiagoa kontratatzea (lehen arriskuko edukitzailearen modalitatean izan ezik). Ez dira sartzen lokal hutsak, trastelekuak eta garajeak.
- Gutxieneko prima: 200 € merkataritzarako eta 400 € negozioarako.
- Azken efektu-data: 2022ko martxoaren 31.

B. Erantzukizun zibila

- Aseguru-konpainia: Seguros Lagun Aro SA.
- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Sustapeneko modalitateak: 3.a, 4.a eta 5.a.
- Gutxieneko prima: 200 €.
- Azken efektu-data: 2022ko martxoaren 31.

C. Bizitza

- Aseguru-konpainia: Seguros Lagun Aro Vida SA
- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Modalitateak: +Bizitza, Bizitza Emakumea eta Bizitza Optimoa.
- Gutxieneko prima: 200 €.
- Azken efektu-data: 2022ko martxoaren 31.

D. Eguneko Baja

- Aseguru-konpainia: La Previsión Mallorquina de Seguros SA.
- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- 300 €-ko edo gehiagoko primetarako.
- Modalitatea: Eguneko Baja OPTIMOA.
- Azken efektu-data: 2022ko urtarrilaren 31.

E. Osasuna

- Aseguru-konpainia: Sanitas SA de Seguros.
- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Mas Salud PRO modalitateak: Profesionalak, Profesionalak Plus, Profesionalak Optimoa.
- Azken efektu-data: 2022ko urtarrilaren 31.

3.3.- Produktu bakoitzaren baldintzak, autoko, bizitzako, merkataritzako, negozioko edo erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzeagatik 3 hilabeteko kuota-zatia itzultzeko, 2.2.1.1. ataleko bigarren paragrafoan jasotzen den bezala

Bezeroak baldintza hauek bete beharko ditu, adierazitako aseguruetako bat gurekin duela jotzeko:

3.3.1.- Produktu guztietarako baldintza orokorrak

- Asegurua indarrean eta ordainketak egunean izatea.
- Caja Laboral Bancaseguros izatea bitartekaria.

3.3.2. Auto-aseguruetarako baldintzak

- Automobil, furgoneta edo kamioi bat aseguratzeko poliza izatea.

3.3.3. Merkataritza-aseguruetarako baldintzak

- Ez dira sartzen lokal hutsak, trastelekuak eta garajeak.
- Gutxieneko prima: 200 €.

3.3.4. Negozio-aseguruetarako baldintzak

- Gutxieneko prima: 400 €.

3.3.5.- Erantzukizun zibileko aseguruetarako baldintzak

- Modalitateak: 3.a, 4.a eta 5.a.
- Gutxieneko prima: 200 €.

Sustatzailea:

Aseguruen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legediaren arabera.

Arriskuaren aseguratzailleak: Seguros Lagun Aro SA, Seguros Lagun Aro Vida SA, La Previsión Mallorquina de Seguros SA eta Sanitas SA de Seguros.

Aplikazio-eremua:

Seguros Lagun Aroren banka-aseguruetako operadore lotetsia den Caja Laboral Popularren banaketa-sarearen bidez kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina. Caja Laboral Popular Bitartekarien Erregistro Administrazio Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin.